



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteazkena  
2010-07-07

VIII. URTEA 2.045. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

LUISA MONTECELO ETA ONDITZ JAUREGI BIDAIAIRIAK

## «Aurreikusita genituen helburuak betetzea ezinezkoa egin zaigu»

**VILLABONA** Zazpi hilabetetan Afrika iparretik hegora gurutatu dute furgoneta baten laguntzaz

**ELKARTRUKEA** Furgoneta materialez beteta eraman dute; hori banatzea zen helburua «baina ez edozein modutan» 4-5



Atzo egin zuten zaharberrietako uhaskaren inaugurazio ekitaldia . E. MAIZ

## Subijana etxeko garai bateko uhaska zaharberrituta

**VILLABONA** Oraingoz erakusketak jarriko dituzte bertan; lehena 'Villabona irudikatzen' da 6

## Emakumearen aurkako indarkeriari aurrea hartuz

**GIZARTEA** Albiztur eta Bidegoiango etxeetan zer egin jakiteko informazioa banatuko dute 3



HITZA



sarrerak


HITZAK harpidedunentzat  
2 sarrera (lagun batentzat) ditu



Lagun Onak-en eskutik  
**MACACO**ren kontzertua  
'mensajes del agua'  
Azpetiko Garmendipe  
Futbol Zelaia  
uztailak 10, larunbata/22:00

sarrerak eskuratzeko deitu goizez:  
**943-65 56 95**  
harpidedun kodea eskura duzula  
Jasotako deli guztien artean zozketa egingo dugu.  
Sari-dunen izenak uztailearen 9ko egunkarian.

harpidedunak  
**TXOKOA hitza**



## Plaza Zaharrean ezusteko gertaera

**TOLOSA** ■ Herenegun 20:00ak inguruan, «herritar batek» Plaza Zaharrean eltze bat zegoela esan zion udaltzaingoari. Hauek Ertzaintzari deitu ostean, bonben aurkako neurriak hartzeari ekin zioten. Ingurunea itxi ondoren, bizilagunei etxetik ez irteteko eskatu zi-

tzaien. Udaletxearen ondoan izaki, bertan bilduta zeudenak atzeko atetik atera zituzten. Ondoren, Ertzaintzak robota lanean jarri zuen eta honek, bertan bonbarik ez zegoela argitu zuen; «presio-eltze bat eta telefono mugikorra kargatzeko kablea zeuden». i. t.

**Gidariak** behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

**Lan publikoetarako** zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak** behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

## Z Zurea da hitza info

# Hamaika telebista ikusi nahi dut

### HERRITAR BAT

Tolosako herritar gisa idazten dut hau, ezintasun batek eraginda. Badiara aste batzuk Hamaika Telebistak *Esatea Libre!* izeneko saioa iragarri duela eta interesa izan dut hori ikusteko. Eta lortu dut ikustea internet bidez. Eta honek gero eta gehiago erakutsi dit zer ari naizen galtzen LTD bidez Tolosan ez dugulako Hamaika hartzen. Antza denez, gure eskualdean 28 Kanala da tokiko telebista eta Tolosaldean bizi garenok ezin dugu Hamaika telebista ikusi.

Ondo dago 28 Kanalaren ahalegina, baina horretaz gain, telebista digitalaren aro honetan, Intereco-

nomia bezalako kanalak ere ikusten ditugun aroan, euskara hutsezko Hamaika telebista ikusteko aukerarik ez izatea penagarria dela iruditzen zait.

Nik uste nuen 28 Kanala Hamaikaren barruan zegoela eta hori ikusi ahal izango nuela programazio hori. Baina ez da horrela gertatzen. Nik ez dakit noren eskumena den edo nor duen erantzukizuna, baina Hamaika telebista, Tolosaldeko euskaldun guztiok ere ikusteko aukera izan behar genukeela iruditzen zait.

Dagokienez, Tolosaldean Hamaika telebista ikusteko baliabideak jarriko dituztelakoan.

## Zeberio II.a San Fermin torneoan aurkitzen da

**Elduain** ■ Erremonte torneoaren finalerdietan sartuko da lehian Patxi Zeberio, Badiola atzelaria lagun duela.

### ERREDAKZIOA

Euskal Jai Berri pilotalekuan, Huarten, San Fermin torneo hasi zen atzo. Tejados Aozek babestuko du aurten ere erremonte txapelketa.

Oriamendi 2010 enpresak oso lehia estuak antolatu ditu. Lehen partida atzo arratsaldean jokatzeko zen, Ezkurra-Ion eta Urriza-Lizasoren artean.

San Fermin torneoaren gure eskualdeko pilotari bakarra egongo da, hau da, Patxi Zeberio elduaindarra. Aurrelaria zuzenean finalerdietan aurkitzen da, ia txapelkun izateak aukera hori eskaini baitie Zeberio II-Badiolari. Euren aurkariak Juaristi-Urrutia izango dira.

## Laburrak

### Iurre eta Aiz Orratz-Veleta elkarteei eskerrak

**KULTURA** ■ Giroarte dultzaina taldeak eskerrak eman nahi dizkie, San Juan jailetan, ekainaren 27an, VII. Herri Musika Tresnen Topaketa antolatzen lagundu zieten Iurre eta Aiz Orratz-Veleta elkarteei: «Zuen laguntzik gabe ezinezkoa izango genuen guztia behar den bezala antolatzea».

### Alpino Uzturreren irteeran parte hartzeko aukera

**MENDIA** ■ Alpino Uzturre elkarteak mendi irteera antolatu du asteburu honetarako. Culfreda (3.034m) eta Suelza (2.973m) mendiak igoko dira. Irteera ostiralean 17:00etan izango da. Informazio gehiago elkartearen edo 943 65 27 89 telefonon.

### Zine forumean 'Tulpan' ikusteko aukera

**TOLOSA** ■ Bihar *Tulpan* filma ikusteko aukera egongo da Leidor aretoan, 21:00etatik aurrera. Jatorrizko bertsoaren eskainiko dute.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Baserria edo borda.** Etxebizitza bat, baserri edo borda, alokatuko

genuke eskualdean. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

# «Hutsuneak samurtu eta lehuntzeko» hitzordua

**Bedaio** » Joan den larunbatean, urteroko moduan, bedaiorrek gogoan izan zituzten ondoan ez dituzten haiek.

## OIHANA IGUARAN

Falta direnak omentzeko eguna izan zuten Bedaion pasa den larunbatean, Artubi elkarteak antolatuta. Herritar asko animatzen da jada ohitura bihurtu den festa honetara. Izan ere, antolatzaileek dioten bezala, «nork ez dauka aita, ama, anaia edo lagun baten hutsunea? Bedaioarrok, urtean behin hutsune hori samurtzen saiatzen gara».

Falta diren guzti horien omentzeko, festa berezia antolatu zuten herritarrek arratsaldetik hasita. Nahiz eguraldiak ez gehiegi lagun-

du, giro txarrari aurpegi ona jarriaz mendira abiatu ziren 17:00etan, falta direnen omenean Artubi mendiaren magalean dauden monolitoen oinetan lore eskaintza egiteko.

Ez zuten zalantzarik izan abiatzeko orduan, antolatzaileek adierazi dutenez: «ez zen aurreko egunetako eguraldi berorik, baina laino eta lanbro artean egin genuen mendiko eskaintza».

## 160 lagun afaltzen

Ondoren, «indarrak berreskuratze» afaria egin zuten herriko frontoian. Bertan, jendea asko bildu zen, eta bakoitzak etxetik ekarritako afaria izan arren sagardo dastatzea ere antolatu zen.

Jarraian, festa giroari eusteko bi bertsolarien laguntza izan zuten, Bixente Gorostidi eta Unai Muñozarena, hain zuten. Bertsolarien



Lore eskaintza egin zieten pasa larunbatean falta direnei, Artubi magaleko monolitoetan. ARTUBI ELKARTEA

doinuekin animaturik, herritarrek ere euren tartea hartu zuten, euskal abesti zaharrak gogora ekartzeko.

Azkenik, bedaiorren ohitura den dantza saioa izan zuten, trikiti doinuen aitzakian. Antolatzaileen hitzetan, «aspalditik datorriku dantzarako grina eta trebezia, eta ezin dugu Bedaion jai giro bat pentsatu trikiti eta panderoen doinurik gabe».

Ostolaza eta Andonegi izan ziren musikaren erantzule, «eta bedaiorrek, nola ez, azken dantza jokoa gaueko ordu txikiak arte luzatu zuten, egun borobilari amaiera borobila emanez».



Afaria frontoian, indarrak berreskuratze. ARTUBI ELKARTEA

# Indarkeriaren aurkako prebentzio kanpaina

**Gizartea** » Ekintza desberdinak entolatuko dira eskualdeko hainbat herritan, Albiztur eta Bidegoian esaterako.

## OIHANA IGUARAN

Saiaz gizarte zerbitzu mankomunitatea emakumearen aurkako erasoak prebenitzeko kanpainarekin ari da lanean, eta mankomunitate horren parte dira, Albiztur eta Bidegoiango udalekin batera, Beizama eta Errezilgoa.

2008-2009 ikasturtean, pertsona bat aritu da gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko azterketa egiten aipatutako lau herrietan, bertako talde desberdinekin hitz eginez.

Behin azterketa horren ondorioak landurik, kanpaina desberdinak jarriko dira abian, hemen aipatutakoa lehenengoa izango delarik, emakumearen aurkako indarkeriaren kontrakoa, hain zuten. Kanpainaren lehen pausua, jendea informatzea izango da; horretarako, triptiko batzuk banatuko dira etxetara lehenengo, jendeak ekitaldien berri izateaz gain, indarkeri kasuen aurrean jokatzeko aholkularitza eta baliabideak ere izan ditzen.

## Indarkeria definituz

Esaterako, etxetara banatuko diren triptikoetan, indarkeria fisikoz gain beste asko ere badirela azalduko da; mespretxua, irainak, errespetu faltak, xantaiak, kontrol ekonomikoa, gizartetik baztertzeta...

Prebentzioa da giltza, baina eraso horien aurrean hartu beharreko jarrera eta aholkuak ere agertuko dira triptiko horretan, eta baita laguntzarako telefono eta helbideak ere. Hala ere, gaiak duen garrantzia ikusirik, sakonean jorratuko da, eta udal antolatzaileek irailetik aurrera egingo diren ekintzetan parte hartzera animatu nahi izan dute jendea.



# Amezketako jubilatuen, Iparraldean

**AMEZKETA** » Joan den igandean izan zen jubilatuen irteera, Amezketako Udaleko kultura eta gizarte zerbitzu batzordeak antolatutik. Honela, Ipar Euskal Herriaren egun eder bat igarotzeko aukera izan zuten 60

urtetik gorako herritarrek. Goizean, Biarritz eta Hosesgor ezagutu zituzten, eta Ibardinen bazkalduta ostean, Soko eta Donibane Lohitzune ikusteko denbora librean izan zuten, bertan meriendatuz. OIHANA IGUARAN



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**ANOETAKO HERRI IKASTOLAK DATORREN IKASTURTERAKO HIRU LANPOSTUETARAKO DEIALDIA EGITEN DU**


**LANPOSTUAK eta ESKAKIZUNAK**

- **Hezkuntza Laguntzaile Espezialista.** Dagokion titulazioa eta EGA edo baliokidea.
- **Jangelarako langilea.** Euskara gaitasuna.
- **DBHko teknologiko irakaslea.** Dagokion titulazioa eta EGA edo baliokidea.

CURRICULUMAK anoeta@ikastola.net-era bidali lanpostua zehaztuz edota ikastolako idazkaritzara  
• ordutegia: 9:00-14:00) ekarri.  
• Epea: Uztailak 13 (arratsaldeko ordu-biak).  
• Argibide gehiagorako: 943-652932.

**Elkarrizketa**

**LUISA MONTECELO ETA ONDITZ JAUREGI** Bidaiak



**«Bidaia erronka modukoa izan da, eredu guztiak hautsi ditugu»**

**Villabona** » 7 hilabetan Afrika iparretik hegora gurutzatu dute bi billabonatarrek; Afrikabakanam izeneko blogean kontatu dute euren abentura.

**MIKO TERRADILLOS**

Kontu gurutzatzen ari zirela egin genuen bat martxoan Luisa Montecelo eta Onditz Jauregi billabonatarrek. Hiru hilabete geroago, etxean iritsi berria egon gara etxekin. Atzean utzi dute Afrika, eta berekin lurraldea zazpi hilabete iparretik hegora igarotzen lagundua dien furgonera. Eurokin ekarri dituzte bertan bizirikak eta ikastakak. Hortien inguruan ari dira solasean bi abenturazaleak.

**Zer gogoeta egin duzue egin berri duzun bidaiaz?**  
**Luisa Montecelo:** Furgoneta materialerik ez ematen genuen, eta gure beharburu hori bantzea zen, baina ez edozein moduan, behar

rikustera. Hara oporretan josten da jendea eta dirua utzen du, eta ondorioz, txurrik ikustea dirua kortsarekin identifikatzen dute.

**L.M.** Bidaia hasi aurretik jende ugari lagundua zigen materialerik, beraz, konpromiso bat ere bagenien berriekiko. Gogor sartatu gara gure furgoneta edo truketa leku egokian egiteko, baina oso zaila izan da.

**Hala ere, lurralde batetik bestera izango zene desberdintasunik.**  
**O.J.** Tunis edota Egipto bezalakoekin, espero genuena topatu genuen, hau da, turismoa erabat ohituta daude, eta euren diru irria da. Baina, bai, ez da leku guztietan berdina gertatu.

**L.M.** Malawi-ko zozagarria da eta une politik eta lasiak igaro ditugu bertan. Paisai benetan ikusgarriak ditu.

**O.J.** Sudan ere sipatu dezakegu, sorpresa handienetakoa izan baita, benetan izela. Beldur ginen bertatik igarotzeko zailtasunak

izan genitzaiehalako errepideen-egatik, baina eskeki moldatu ginen, eta bertako jendea ere oso esker onekoa eta jatorra da.

**Zer hori duzue abentura honetan?**  
**L.M.** Bidaia erronka personal baten modukoa izan da guretzat. Bi emakume horrelako bidaia bot egitea, furgoneta zahar baten laguntzarekin, eta traba ugari gaindituz bidean.

**O.J.** Bisi Eredu guztiak hautsi ditugularen datokoa. Oso gogorra izan da eta une txarrak ere bizitu ditugu, baina posible da egitea. Galnerra, aurrekoak genituen behar guztiak bete ezinezkoak zenez, txip-a aldatzea eta bidaiaz zozatze lortu dugu.

**Izan ere, trabak asko izan dira.**  
**O.J.** Bisi Furgoneta makina bat aldi zozortatu zaigu, eta hori arazo bat zen, berrago eta hango talerrek ez baitaite berdin funtzionatzen. Azkenean, Mozambiken utzi ditugu, eta begazkinez bueltatu

gara. Baina, horrela aurkeztu ginen, hau da, bidaiarako prestatzen ari ginen, lagunen lan guztia bertan utziko genuela. Bestela, bisitatu eta lurralde aldatzea ez da hain besterainokoa izan.

**Zer izan da gogorrena?**  
**O.J.** Etiopia oso gogorra izan da. Lurralde txirra da oso, eta oinarri oso baxi bezalako, oso pikatua, laho bezalako doan arren.

**L.M.** Pertsona txurrik ikusi orduko egin ari diren ematen dute, eta guzti eskatzen dituzten horrela daude ohituta, eta horrela erakusten diete tokietan ere.

**O.J.** Txiki eta osuna ikusi dugu bertan eta pena sentitu genuen, guk furgonetan materiala bagenuekiko. Baina, gure ustez, lagundua baino min handiagoa egingo genieke haiak eskatu eta guk geniena emango bagenien. Jaso besterik ez dute nahi egin, eta horregatik eskatu eta eskatu egingo dute, eta guk ez genien horretan sartu nahi. Truke bat da guk buruaguenena. Aurre-

ko bidaietan, gugana hurbiltzen zirenean ez zen eskatzen izaten, euren zutena eskaintzeko baino. Orduan, guk truketan euren ere ematea eduki ikusten genuen. Hori zen bidaia honetan espero baino ia aurkitu ez duguna.

**Orduan nola egin duzue materiala modu egokian banatzeko?**  
**O.J.** Elkarrizketak eta jarri beharra izan dugu harremanetan. Baina ez edozeinekin. Saitu gara atzerriko laguntzarik josten ez duten hotsiguna iristen. Esaterako, Sudaneko eskola batean utzi genuen materiala, eta Villabonako Ernio-bea lantokian jarri ditugu harremanetan, bertatik emandako materiala baitzen.


**Hurrengo bidaia nora egingo duzue?**  
**L.M.** Mundu guztiak gauza bera galdetzen digu. Ez dugu ezer oraindik buruan, eta gainera, bidaia honetarako, aurrekorako bezala, lan handia egin behar dago aurretik. Beraz, auskalo.



Etiopiako merkatu batean guztiak busten.



Sudango eskola batean banatu zuten eraman zuten eskola materiala.



Sudan eta Malawi izan dira leku gogokoenetakoak bidaia honetan.

Internet onena, etxe barruan

Internet onena 18M

EuzkoNet

eta handik kanpo

Internet onena 20,9€

EuzkoNet

20,9€

Orduak 1171 Fax: www.euzko.net



Hautsi Izagirre Kultura zinegotzia eta Maixabel Arrieta alkatea, uhaskaren inguruko azalpenak ematen. E. MAIZ

## Uhaskako atea irekitzeko 'Villabona irudikatzen' erakusketa baliatu dute

**Villabona** » XIX. mendeko uhaska zaharberitu dute. Ekitaldi ezberdinetarako erabiliko dute. Hilaren 21a bitarte erakusketa dago.

### ENERITZ MAIZ

Villabonako Udalak iazko maiatzean Maiatzaren Lehena plazaren azpian aurkitzen den uhaska egokitzeko lanak egitea erabaki zuen.

Subijana etxeko garai bateko uhaska da berritu berri dutena. Ehun fabrika izan zeneko eraikinaren ur-tanga zaharra da eta erre-serbarako erabiltzen zuten. Arkuez osatuta dago eta ia 200 metro karratu ditu. Herritarrek erabiltzeko, balio anitzeko gela bihurtu dute. Momentuz, erakusketa jartzeko aukera aurreikusi dute.



Arkuez osatutako eremuak obrak egin aurretik itxura hau zuen. R. CALVO

### Iragana eta etorkizuna

Hilaren batetik atea irekita baditu ere, atzo egin zuten irekiera ofiziala Udal ordezkariak eta Donostiako Arkitekтура Eskolako sei irakasleek.

Ehun fabrika izan zeneko eraikinaren ur-tanga zaharra izan zen. Enpresako langileek, bazuten leku honen berri, baina urbanizazio obrak hasi bitartean, Udalak ez zuten leku hau ezagutzen.

Lekua ikustean, XIX. mendeko altxor hau, zaharberitzea erabaki zuten udal ordezkariak. Eta memoria historikoaren proiektuaren barnean sartu dute.

Hautsi Izagirre Kultura Zinegotziak, Udalaren nahia eta helburuak azaldu zituen «gure nahia mota ezberdinetako ekitaldietan erabiltzea izango da. Ez du izango ekipamendu zehatz bat eta atea irekita izango ditu. Oraingo, erakusketetan pentsatu dugu. Eta Villabona Irudikatzen erakusketarekin atea zabaltzea egoki ikusi genuen» nabarmendu zuen. Era berean, «garai bateko lokal bat, etorkizuneko ideiak erakusgai jartzeko izatea egokia iruditu zitzaigun. Honekin, hemendik urte batzuetara, Villabona zer izan daiteken azaltzen da». Arkitekturako ikasleek Sacem eremuan egindako proiektuak ikus daitezke.

## Salmenta zuzeneko kontsumo taldea osatzeko bilera, bihar 19:00etan

**Zizurkil** » Atxulondo Kultur etxean izango da. Aitzondo bailarako herritar guztientzat irekia da. Taldea osatu nahi da.

### ERREDAKZIOA

Aitzondo bailaran kontsumo taldea sortzeko ekimena abian da. Kontsumo taldearen bidez, nekazaritza produktuak bertuko baserriar bati zuzenean erosteko aukera izango da. Kontsumo taldeetan salmenta zuzeneko da eta adostutako elkarlanean oinarritzen da.

Maiatzean eginiko lehenengo bileran herritar batzuek izena eman zuten ekimen honetan parte hartzeko. Orain bigarren urratsa emateko garaia da eta bihar 19:00etan egingo den bilera taldea osatzeko izango da. Bilera guztiak irekiak izango dira, interesa duen edonor joan daiteke.

## San Lorentzo jaietan egingo duten herri antzerkirako laguntza bila

### ERREDAKZIOA

Ikaztegiatiko San Lorentzo jaietan, herritar talde batek, gazteak zein helduak, antzerkia egingo dute. Aktore lanez gain ordea, laguntzaileak behar dituzte aurretik egin beharreko prestaketa lanak egiteko; muralak, arropa, muntaiak... Hori dela eta, bilera bat deitu dute gaur 19:30ean liburuetan. Aktoreez gain, lagundu nahi duen orok gaur izango du aukera.

## Hilberria

**JOXESARASOLA BALERDI**  
JAUNA

Atzo hil zen, 86 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Goian bego-

Emaztea: Joxepa; Xerpa, Ester, Lurdes, Iparra, Reies, Iñaki; Xabat, Akaiz, Sheila, Araitx.

**Urak dakarrena urak darama**



**LIZARTZA**  
2010eko  
uztailaren 7an

Helbidea: Gurutz bide, 4.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA

EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900



Ekainaren 19an izendatu zuten Edurna Pasaban, alaba kuttun; bertan izan zen Juan Garmendia Larrañaga ere. E. EZEIZA

## Zabala, idazle eta literaturgilea

### ERREDAKZIOA

Antonio Zabala Tolosan jaio zen 1928ko urtarrilaren 23an, eta Xabierren zendu zen 2009ko urtarrilaren 2an. Euskal idazlea eta euskal herri-literaturaren ikerlaria eta editorea izan zen. 1945ean sartu zen Jesusen Lagundian, eta horri esker Oñatin Filosofia eta Teologia ikasi zituen. Adunan piztu zitzaion bertsoarekiko zaletasuna. 1961ean, bertsoaritzaz hedatu duen Auspoa argitaletxea sortu zuen, eta 1964an, euskaltzain oso izendatu zuten. 1993an Biblioteca de Narrativa Popular izeneko bilduma sortu zuen, gaztelaniaz ipuinak argitaratzeko. 2000. urtean Tolosako Seme kuttun izendatu zuten. Kazetaritza alorrean ere aritu zen, besteak beste, 'La Voz de España', 'Diario del Alto Ara-



gon' eta 'El Diario Vasco' egunkarietan. Antonio Zabala mendizalesutsua ere bazen. Aipatu bezala, 2009ko urtarrilean zendu zen herri-literaturaren ikertzaile eta suspertzaile izandakoa.

Bere gertukoek trikua bezala deskribatzen zuten Zabala, «arantzak baitzitu kanpoan, baina gerturatuz eta ezagutuz joan heinean, haragi bigunarekin eta lagunartekoarekin egiten zenuen topo». Haren lan egiteko modua deskribatzeko, honela zioten, «lan zaila, eta gogorra, eta bakarrik egi-na, gainera, berak aitortzen zuen bezala, inolako laguntzarik gabe; bertsoak bildu, zabaldu, idatzi, kobratu... guztia egiten zuen berak bakarrik, eta kritika gogorak jasoz gainera, alferrikako lana egiten ari zela entzuten baitzuen maiz»

## Garmendia, etnografoa

### ERREDAKZIOA

1926ko uztailearen 12an jaio zen eta bere jaioterrian eman du bitziza osoa. Oronozen maristekin emandako urtebetea ezik Juan Garmendia Larrañagak Tolosan izan du bere lan egoitza. Garmendia etnografoa da, baina kondairagile gisa ere aritu izan da. Bere lanak, dena den, antropologo, folklorezale, hizkuntzalari eta -oro har- euskal kulturarekin identifikatuta sentitzen diren guztiengana iristen da.

Tolosako hiriak Seme Kuttun izendatu zuen Juan Garmendia Larrañaga 1998an. Urte berean Eusko Ikaskuntzak, Caja Laboralarekin batera, Kurrikulum Onena Saria eskaini zion. Euskaltzaindiko Ohorezko Euskaltzaina dugu



eta baita Eusko Ikaskuntzako Ohorezko Kidea. Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko Kidea da eta beste hamaika golardo eta erreko-

nozimenduzko goi aipamenak oso ditu, 1950ean euskal kulturaren aldeko jardunean abiatu zene-tik.

Hiru seme-alaba kuttun ditu egun eskualdeko hiriburuan, Juan Garmendia Larrañaga etnografoa, Antonio Zabala idazlea eta Edurne Pasaban mendigoizalea.

# Tolosako familia ugaria

### ESTI EZEIZA

Seme edo alaba kuttun izendapena, pertsona bati, bere jaioterriak eman diezaiokeen saririk handienetako bat da. Honekin, oro har, urteetan egindako lana eta herriaren izena lau haizetara zabaldu izana eskertu nahi izaten zaio sarituari. Une honetan, Tolosak hiru ditu, bi mutil eta neskatoka.

Familiako nagusia Juan Garmendia Larrañaga da, etnografoa. 1998an jaso zuen berak izendapena. Bi urte beranduago, jada zendua dagoen Zabala idazlea gehitu zitzaion familiari. Hamar urte be-

randuago berriz, diferentzia handiarekin, etxeko txikiena, eta neska bakarra batu da, Edurne Pasaban mendigoizalea. Familia ugari bihurtu da beraz Tolosakoa. Hala ere, ziurrenik, urteak aurrera egin ahal, hau handiagotzen joango da.

Hiruak ere, bakoitza bere arloan eredu dira eta ibilbide luze eta oparokoak. Baina herriak ez ditu beraien lanbideari egindako ekarpenengatik eta merituengatik bakarrik aukeratu seme edo alaba kuttun gisa. Baizik eta herriari nahiz kide bezala, gizatasunaren aldetik, duten merituengatik.

## Pasaban, mendigoizalea

### ERREDAKZIOA

Edurne Pasaban alpinista 1973an jaio zen eta munduko hamalau zortzimilakoak igo dituen bigarren emakumea da Oh Eun-Sun-ren atzetik.

Ingeniaritza Tekniko Industriala ikasi zuen Donostian eta gero master batekin zuen Bartzelonako ESADEn (Escuela Superior de Administración y Dirección de Empresas).

Bere zaletasuna eta interesa mendiarekiko oso goiz hasi zen eta familiak lagundu zion horretan. 14 urterekin, Tolosako mendi elkar-tearekin hasi zen arroka eskalatzeko eta, pixkanaka, alpinismoan sartzen joan zen, Pirinioak, Alpeak, Andeak, Himalaia...

1998an, Himalaiara joan zen lehen aldiz. Tolosako mendi elkar-tearekin joan zen eta bere lehen zortzimilakoak, Dhaulagiri (8.167 metro), egiten saiatu zen. Alferrik, ordea, 272 metro bakarrik falta zitirenean, amore eman behar izan



zuen zegoen elur pilagatik. 10 urte geroago lortuko zuen helburu hura, 2008ko maiatzaren leian.

2001eko maiatzaren 23an, iritsi zen bila zebilen lehen zortzimilako horretara, Everest (8.848 metro). Orduan hasitako ibilbide luze eta zailari orain gutxi eman dio amaiera, munduko 14 zortzimilakoak igota.

Euskal Herriko produktak, etxetik gertu zure etxera

Egin erosi, ez darama zure sarrasa. Internet bidez erosteko, egiteko, baina CERAPEn erabiltzen duzun webgunean erosteko proba egin nahi, eta gurekin ezarri bai produktua eta bai zerbitzua.

27,00 €  
Erosi: 10000 Euskal Herriko Baskin 4 liburuak

25,00 €  
Erosi: 10000 Herriaren Herriaren Herriaren Herriaren

Bere produktua erosi eta, bestek laguntza dugu Euskal Herriko Plaza.

www.euskalherriko.plaza.com  
plaza@euskalherrioplaza.com

Herriaren Herriaren Herriaren Herriaren



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Antzerkia

■ **Tolosa.** Mariano Martinez (kafe antzerki emanaldia) Orbela tabernan 22:30ean, Zikloian.

### San Fermin Eguna

■ **Tolosa.** San Fermin festa Alde Zaharrean: 12:00etan txupinazoa; ondoren buruhandien kalejira; entzierro txikia; txokolatada eta jaiarekin bukatzeko *Pobre de mi* tradizionala kantatuko dute. Txuri-gorri jantzirik etortzea eskatzen dute antolatzaleek.

### Deialdiak

■ **Alegia.** Uztailaren 15ean, haurren bazkaria egingo da plazan. Txartelak Kultur Etxean daude salgai uztailaren 12ra bitartean. Uztailaren 17an, herri afaria plazan (sagardotegiko menua, 22 euro). Txartelak, uztailaren 7ra bitartean, Jubilatueña, Etxeberria, Hilarior-Berri, Kafea, Eizmendi eta Kurpil tabernetan.

■ **Berastegi.** Salontzo jaietia hasiera emateko, abuztuaren 6an, herri afaria egingo dute, (txekorra burduntzian). Txartelak salgai Zelai taberna, Dendaberri, Urepele bil-tokia eta Basurde elkartean 16 eurotan (12 urtetik beherakoek 8 euro).

■ **Leitza.** I. Korto Lehiaketa. Gaia libre, gehienez 15 minutuko filma. Talde bakoitzak gehienez hiru lan desberdin, kameraz edo mugikorre-z grabatuak. Lanak Atekabeltz gaztetxeko atarian dagoen buzoian utzi beharko dira.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Hondartzarik ezean, denak igerilekura

**TOLOSA** ● Kostaldea eta hondartzak oso gertu izan arren, askok nahiago izaten dute herrian geratu eta igerilekuan freskatu tenperatura altuetatik. Usabal kiroldegiak aisiarako aukera polita eskaintzen du, gaztetxoek jo-

lasteko gailuekin eta udako liburutegiarekin, besteak beste. Helduogentzat ere, atsedean hartzeko leku aproposa izan daiteke. Atzoko moduan, bete beterik izango da udan, eguzkia lagun denetan. i.r.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Unai Zubeldia Elduaian (Ibarra).**  
Dagoeneko 7 urte gure mattiak. Merendolak on egin eta gora San Fermin!

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31860 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>